HERNANIN HARRERA PROTOKOLOA BERRIKUSI ETA BERRITZEKO PROZESUA

Prozesuaren ondorioen txostena

eta harrera protokolo proposamena

Hernanin, 2021eko otsailean



Hernaniko Udala

AURKIBIDEA

SARRERA

SARRERA

Ondorengo orrietan jasotzen den proposamena Hernaniko harrera protokoloa berrikusteko prozesuan jaso diren ekarpen eta proposamenekin eraikia izan da. Harrera prozesuetan inplikatutako eragile eta norbanako ezberdinek egin dituzten hausnarketak abiapuntu hartuta, Hernanin etorri berriei egiten zaien harrera hobetzeko asmoz egindako proposamenen bilduma da.

Dokumentu hau hasierako zirriborroa da, pertsona ezberdinek egin dituzten proposamenen elkartze bat, udal arduradunekin kontrastatu eta baloratu behar dena. Izan ere, hurrengo orrietan aurkezten diren proposamenek baliabide eta bitarteko berriak, egiteko eta antolatzeko modu berriak, eta egungo funtzionamenduan aldaketak eragingo lituzke.

Proposamenak eta ekarpenak anitzak dira, esku hartze eta inbertsioak eskatzen dituzte, eta zentzu horretan, Aztiker Soziologia Ikergunetik Hernaniko Udalari gonbidapen bat luzatzen zaio: dokumentu honetan jasotzen diren proposamenak inplementatu edo garatze bidean jartzeko planifikazio bat egitea, plan estrategiko bat bezala idatzi gabe bada ere, proposamen guztiak egun batetik bestera garatzea ezinezkoa izan daitekeela ulertuta, epe motz, ertain eta luzean garatuko direnak antolatzea, behintzat. Horretarako, eranskinetan koadro bat jaso da, momentuz zurian dagoena eta udal arduradunekin baloratuko da bere baliagarritasuna.

Egungo harrera prozesuak hobetzeko ekarpen eta proposamenak hiru eremutan antolatuak izan dira, orain arteko prozesuaren eskema berdinari jarraituz: udal harrerari dagozkionak, hezkuntza eremuari dagozkionak, eta amaitzeko, harrera sozial edo herritarrari dagozkionak.

Sarrerarekin amaitzeko, harrera protokoloaren hasieratik dagoen zailtasun bat kokatzen da (momentu honetan hemen aipatua, azken dokumentuan baloratuko da non kokatu): jarraian aipatzen den prozesua, errolda momentuarekin hasten da, hau da, ez ditu barne biltzen errolda gabe hernaniar diren horiek.

GAUR EGUNGO ERREALITATETIK ABIATUZ

Harrera protokoloaren diseinuari ekin aurretik egungo errealitatea ezagutzeko ikerketa lana burutu da, bi urrats nagusitan: (1) lehendabizi datu demografikoen ustiaketa burutu da, jatorri aniztasunaren argazki orokorra jasotzeko, eta (2) ondoren egungo harrera prozesuen balorazio eta diskurtso kualitatiboak jaso dira, hainbat elkarrizketen bitartez. Bi lan hauek abiapuntu izan diren neurrian, ondoko orrietan lanketa zabal hauen laburpena jasotzen da (informazio gehiagorako txosten osoak ere eskuragarri daude).

JATORRI ETA KULTUR ANIZTASUNA ZENBAKITAN

Lehen taulak agertzen duen moduan, 2020an Hernanik 20.691 biztanle ditu. Hauetatik 15.914 Euskal Herrian jaiotakoak dira, herritarren hiru laurdena baino gehixeago (%76,9).


Bestetik, Euskal Herritik kanpo sorturikoak osotara %23,0 dira; horietatik %14,7 europarrak; eta gehienak Espainiako Estatutik etorritakoak (%12,5). Amerikatik datozenak, aldiz, %5,5 dira; gehienak Hego Amerikatik (%2,8) eta Ertamerikatik (%2,0), hain zuzen ere. Afrikari erreparatuz, Hernanin 2020an bizi diren %2,2 biztanle afrikarrak direla ikus daiteke. Asiatik etorritakoak, berriz, hernaniarren %0,5 dira; eta Ozeanian jaioak, ostera, %0,01; hiru pertsona besterik ez.

Euskal Herritik kanpo jaiotako hernaniarrak 4.777 herritar dira, esan bezala populazioaren ia laurdena (%23,0). Multzo horren barruan agertzen diren estatu nagusiak Espainiako Estatua (2.601 herritar), Maroko (233), Nikaragua (200), Ekuador (196), Honduras (192), Kolonbia (143) eta Errumania dira (122).


Hurrengo grafikoak irudikatzen duenaren arabera, herrian bertan jaio direnen artean gizonak %50,7 dira eta emakumeak %49,3. Hortaz, Hernanin bertan jaiotakoen genero banaketa oso parekoa dela esan daiteke. Euskal Herritik kanpo jaio diren hernaniarrei dagokienez, kontinentearen arabera aldaketak somatzen dira. Hala, Europatik zein Asiatik etorritako jendearen artean generoaren araberako aldea murritza da. Europaren kasuan, adibidez, emakume eta gizonen arteko aldea 6,4 puntukoa da.

Aitzitik, Amerika, Afrika nahiz Ozeaniaren kasuetan generoen arteko aldea nabarmenki desorekatzen da. Amerikari dagokionez, emakumeak %63,5 dira, eta gizonak %36,5 besterik ez. Ondorioz, bien arteko aldea 27 puntukoa da. Ostera, Afrikari erreparatuz, 26,6 puntuko aldea ikusten dugu oraingo honetan ere, baina Amerikan ez bezala, oraingoan, gizonen aldekoa da.

Lurraldea	Guztira	%
Herritarrak Guztira	**20.691**	**100,0**
Euskal Herria Guztira	**15.914**	**76,9**
Europa Guztira	**3052**	**14,7**
Espainiako Estatua Guztira	2601	12,5
Amerika Guztira	**1145**	**5,5**
Ipar Amerika Guztira	6	0,0
Ertamerika Guztira	421	2,0
Antilak Guztira	136	0,6
Hego Amerika Guztira	582	2,8
Afrika Guztira	**465**	**2,2**
Ipar Afrika Guztira	293	1,4
Saharaz hegoaldea Guztira	172	0,8
Asia Guztira	**112**	**0,5**
Ozeania Guztira	**3**	**0,0**



Biztanleen bataz besteko adinari erreparatuz gero, herrialdeen arabera aldatu egiten da. Hala, europarrak populazio zaharkituena direla ikus daiteke (63,1 urte batez beste). Kontuan hartu beharrekoa da, Europatik etorritako hernaniar gehienak Espainiako Estatutik iritsitakoak direla; eta beraz, XX. mendeko bigarren erdian gertatutako migrazio-fluxuei dagozkien biztanleak dira neurri batean. Bestetik, Gipuzkoako herriren batean jaio diren Hernaniko biztanleen bataz besteko adina ia 46 urtekoa da. Ildo beretik, are zaharkituagoa da Euskal Herriko gainerako herrialdeetan jaiotakoen adina, 57 urtekoa izanik.



Amerikatik, Afrikatik eta Ozeaniatik etorritako biztanleen bataz besteko adina 37 urtekoa da; asiarrena, ordea, 33 urtekoa. Herritarren hauek egiten dute posible Hernaniko herritarren batez besteko adina 45 urtetik beherakoa izatea.

Azkenik, eta harrera prozesuekin zerikusi zuzena duen puntua delakoan, azken hamar urteetako mugimenduen estimazio bat eginda, Hernanin azken hamar urteetan 3.882 pertsona erroldatu direla esan genezake. Norabide horretan, oso kontuan izatekoa da ondorio gisa, Hernaniko errealitatea demografikoan gaur egun bizi diren pertsonez harago, azken hamar urteetan pertsona kopuru horri eta gehiagori harrera egiteko aukera izan dela.

	2010-11 urteak	2012-13 urteak	2014-15 urteak	2016-17 urteak	2018-19 urteak	**Guztira**
Europa (Espainiatik kanpo)	110	242	128	146	98	**724**
Afrika	132	254	234	258	272	**1.150**
Amerika	232	246	304	408	556	**1.746**
Asia	16	28	52	54	54	**204**
Beste	2	26	18	12	0	**58**
Guztira	**492**	**796**	**736**	**878**	**980**	**3.882**

EGUNGO HARRERAREN MAPA OROKORRA

Eskuin aldean agertzen den mapan Hernanin harrera gaietan modu batean zein bestean inplikatuak diran eragile eta erakundeak agertzen dira; kasu batzuetan beraien arteko koordinazio eta elkarlan zuzenak dituzte, beste kasu batzuetan elkarrekiko informazio gutxiago dutela ere jaso da. Harreman hauen inguruko informazio xehetua "Hernaniko Egungo Harreraren Diagnosia" dokumentuan jasotzen da. Orriotan irudi hau jasotzen da egungo errealitatearen zertzelada orokor batzuk jasotze aldera.


Hiru eremu nagusitan antolatu dira eragileak: Hezkuntza eremuko harrera eragileak, Udal harrera egileak eta Harrera soziala edo gizarte eragileen bide.

Etorri berriekin zuzeneko harremana duten eragileak koloreztatuta agertzen dira mapan, HHZ, Ikastetxeak eta AMHER-Sos Arrazakeria eta Harrera Sarea, hain zuzen. Ardura, zeregin eta ikuspegiak lanerako anitzak dira eta bakoitzak herritar etorri berrien perfil ezberdinekin egiten du lan, baina neurri batean badira etorri berriek Hernanin izan ditzaketen harreman "antolatu" edo formalen lehen puntu edo guneak.

Harreman eta koordinazio sareei dagokionean, aipatzekoa da Udaletxeko Kulturartekotasun Arloaren lidergoa, izan ere, mapan agertzen diren eragile eta erakunde guztiekin harremana du, maila formal (harreman egituratu eta instituzionalizatuak) zein informalean (koordinazio puntualak).

Harrera sozialari dagokionean, AMHER-Sos Arrazakeria elkartearekin urteroko hitzarmenaren bidez hainbat funtzio, zeregin eta baliabide eskaintza adosten dira.

Ikastetxeetan egiten den esku-hartzea eta kulturartekotasunarekin lotura duten gaiak lantzeko Etorkinen seme-alaben inklusiorako langunea sortu zen, eta zehazki Harrera Batzordean matrikulazio epez kanpo datozen etorri berrien seme alabak matrikulatzeko irizpide eta proposamenak egiten ditu, eta bertan parte hartzen dute ikastetxeetako zuzendaritzek, udal teknikari arduradunek (Euskara-Hezkuntza, Gazteria eta Kulturartekotasuna) eta herriko eragile zehatz batzuek (Hezkuntza Plataforma eta AMHER-Sos arrazakeria).



HARRERAREN INGURUKO IRITZI ETA HAUTEMATEEN ONDORIOAK

Diagnosiaren ondorioekin amaitzeko, honako puntu hauetan jasotzen dira 9 elkarrizketa eta 3 talde elkarrizketen bitartez jasotako iritzi eta hautemateen ondorio nagusiak.

1. EGOERA LARRIAN DATOZEN PERTSONAK, IRISTEKO MOMENTUAN MAIZ TOPATZEN DIREN EGOERA HOBETZEKO BALIZKO ZERBITZUAK ETA HARREMAN SAREAK INDARTU
   - Bertako pertsona eta familia sareak aktibatu + Udal zerbitzu batzuk prezio baxuan edo sinbolikoan jarri lehengo hilabeteetan.
   - Aterpetxe edo etxe babestu moduko gune bat behar dela baloratzen da, denbora mugaturako, baina erroldatzeko aukerarekin.
2. HARRERA ZERBITZUA UDALEKO BULEGO/GELA KONKRETU BATEAN ZENTRALIZATU ETA INTEGRATU BEHARKO LITZATEKE, ARRETA PERTSONALAGO, JARRAITUAGOA ETA GERTUAGO BAT ESKAINTZEKO
3. EGOERA JURIDIKOAZ ERE AHOLKULARITZA ETA GOMENDIOAK MODU IRAUNKORRAGOAN ETA GERTUAGOAN BEHAR DIRA
4. EZ DAGO ELKARBIZITZA INTERAKZIORIK GABE, ETA INTERAKZIOA BEREZ EZ DA EMATEN. ESKEMA HAU PUSKATZEKO INSTITUZIOETATIK ZEIN GIZARTETIK INTERAKZIO KANALAK SORTU BEHAR DIRA ELKARBIZITZARI BEGIRA
5. BERTAKO BIZILAGUNEKIN SENTSIBILIZAZIOA ETA JARRERA LANDU BEHARRA SUMATZEN DA. Sistema honek, eta egun dugun bizi estiloak pertsona hauek behar ditu, haiei esker bertakoak badirelako. Ideia eta begirada hau landu beharra sumatzen da, orokorrean eta eremu guztietan: instituzionalean, hezkuntzan, eremu sozialean...
6. BI NORABIDETAN ERAGITEKO ETA ERALDATZEKO IKUSPEGIA LANDU ETA SORTU BEHAR DA
   - Etorri berriak gure sistema eta egitura instituzionalak eta sozialak ezagutarazi eta eskaini.
   - Bertakoak, etorri berrien ekarpenak eta onurak ikustarazi, eta gerturatzera gonbidatu

HARRERA: ABIAPUNTU GISA

Migrazio mugimenduak unibertsalak dira, bai munduan zehar eta baita gurean ere, Euskal Herrian zein Hernanin. Egiturazkoak dira, beti gertatu izan dira, garaian garaiko ezaugarri edo xehetasunak izan ditu, eta aldi berean harrera gizarteen ezaugarriek baldintzatu dute etorri berriaren harrera, etorri berriaren ezaugarrien arabera, dela generoa, adina, jatorria, etab.

✓ Hernani Harrera Herria

Hernani herriak bultzatu nahi duen harreraren inguruan hausnarketa egitea izan da prozesuaren helburuetako bat. Nola egin nahi du harrera herri honek? Hernani Harrera Herria bilakatzea eta horretan urratsak ematea da protokolo honen helburu nagusia: Eragile anitzen inplikazioa izango dutenak (udalaz harago, hezkuntza eragileak eta eragile sozialak ere ariko direnak), kohesionatua (guztiak norabide berean) eta integrala (pertsonen harrera behar material eta esku hartze asistentzialez harago ulertuko duena).

✓ Eskubidez ari gara

Pertsonen oinarrizko giza eskubideak betetzeaz eta horiekiko konpromisoak hartzeaz hitz egiten ari gara, oinarrizko eskubide horiek betetzeko administrazioak duen arduraz, erantzukizunaz, eta herritarrek-komunitateak horretan duen pisuaz.

✓ Herrian bizitza aktiboa. Inklusioa

Eragile eta sujetu aktibo izatera, herrian bizitza zentzu zabalean garatzeko aukera sustatu nahi da, erabateko eskubidedun pertsonak, bizitzan behar materialez harago, inklusio eta parte hartze kulturala, politikoa eta aktiboa izateko aukerarekin.

✓ Erroldaren gozo eta gaziak

Gaur egungo errealitatean “eskubidedun” pertsona izateko ezinbesteko urratsa dela dirudi. Horrez gain, etorri berriek udal administrazioarekin harremana izan dezaketen lehen momentua da gehienetan, zentzu horretan esanguratsua zein harrera momenturako oso baliagarria; eta aldi berean zailtasun eta oztopo ugarirekin aurkitzen dira etorri berri asko errolda izateko/lortzeko momentuan. Beraz, momentu oso garrantzitsua kontuan izanda etorri berri den orok ezin izaten duela erraztasunez erroldatu.

✓ Hizkuntzaren oinarria: harrera, migrazio prozesuak eta euskara:

Kulturartekotasunarekin lotutako gaietan erronka handia da hizkuntzaren trataera. Zentzu honetan, Euskara berdintasun eta jendarte kohesiorako elementu bezala ulertzen da, hizkuntzak berak izan duen ibilbidea kokatuz eta prozesuan izan behar duen presentziari garrantzia emanez.

EZAUGARRI NAGUSIAK

HARRERA NORI?

Etorri berria, Hernanira bizitzera etorri den herritar berri oro, dena dela bere adina, sexua, jatorria, itxaropena/espektatiba, behar espezifikoak

ZEHARLERROAK

Zeharlerro gisa jasotzen diren eduki hauek protokolo hau sortzeko prozesu osoan zehar etengabe agertu diren faktore eta ezaugarriak ditugu, kulturartekotasun politikak eta harrera politikak zatitzea edo desberdintzea momentu batzuetan zaila bilakatu delarik. Zentzu horretan, prozesuan atera diren ideia hauek jasotzen dira zeharlerro gisa presente izan daitezen harrera prozesuetan:

1. Hernaniar ezberdinen arteko ezagutza eta harremanak sustatu
   Komunitate eta identitate desberdinen arteko ezagutza eta zubiak sortu, komunikazio kanal eraginkorrak, elkarrekin harremana sortzeko espazioak eraiki. Maila indibidualetik harago, komunitate-loturak eta maila afektiboko beharrizanak asetzea kokatzen da zeharlerro honen baitan.

2. Iritsi berrien oinarrizko beharrak asetu
   Herritar guztien eskubideak bermatzen direla ziurtatu eta oinarrizko beharrak asetu (erregularizazio egoera, etxebizitza, elikadura, babesa, berme ekonomikoa, hezkuntzarako sarbidea…). Herrira iritsi berriak diren pertsonek bizimodu duin bat eramateko oinarrizko baldintzak aseta dituztela bermatzea, eta modu horretan pertsona horien eskubideak bermatuta daudela ziurtatzea.

3. Sentsibilizazioa eta formazioa
   Jatorri aniztasuna eta kultur aniztasunaren inguruko lanketa eta hausnarketa sustatu herrian, kulturartekotasunaren eredua indartu, anitzen arteko harremanaren kultura sustatu. Norabide honetan, harrera gizarteko parte diren subjektuen iruditeria eta balioetan eragitea bilatzen da, bertako bizilagunekin sentsibilizazioa eta jarrera landuz.

HARRERA PROTOKOLOAREN URRATSAK


Jarraian aurkezten den eskema honetan, Hernanira etorri berria den pertsona batentzat jasotzen diren baliabide eta aukerak jaso dira (lehen zirriborroa da eta udal arduradunekin zehazten joango da bere baliagarritasun eta zehaztasun maila).

Irudiaren ezker aldean dagoen lehen zutabean, Hernani Harrera Herri gisa herritar berri guztiei (perfil, ezaugarri edo behar ezberdineko pertsonak izanik ere) bideratutako ekimen edo urratsak ditugu: Errolda momentua, Harrera Bulego Integrala eta Ongi Etorri! Saioak.

Bigarren zutabean harrera gaietan inplikatutako hiru oinarri nagusiak jasotzen dira (Udala, hezkuntza eta soziala), egiten duten harrera mota eta bakoitzetik antolatzen diren baliabideak ezberdinak direla ulertuta. Kasu honetan iada, badago behar, perfil edota ezaugarri zehatzen araberako zehaztapen bat, hau da, etorri berri bakoitzak hiru oinarri hauek maila ezberdinean "beharko" ditu edo interesatuko zaizkio. Hiru oinarri hauen inguruko informazio eta orientabidea Harrera Integralerako Bulegoak eskain dezakeela ulertzen da, eta horrexegatik agertzen dira bulegoa eta oinarri hauek elkartzen dituen geziak. Hiru oinarri hauez gain, Bulegoan informazio osagarria eskain daitekeela ulertuta, laugarren oinarri bat gehitu zaio bigarren zutabeari. (eztabaidatu eta aztertuko da udal arduradunekin aproposa ote den antolaketa hau lehen irudi baterako).

Azkenik, hirugarren zutabetik aurrera datorren informazioak herri gisan antolatuak diren baliabide, aukera eta egiturak jasotzen dira: udalaren bitartez antolatuak, hezkuntza sistematik edota hezkuntza eremutik daudenak, eta herri mailan edota sozialean jasotzen direnak.

HERNANI, HARRERA PROTOKOLOAREN MAPA



LEHEN URRATSAK HARRERAN

HHZ
○ Errolda momentua: ▪ Protokolo zehatz bat egongo da "lehen harrera momentuan" eskaini eta eman beharreko informazio eta baliabideak jasoko dituena. Modu honetan, lehen arreta hori sistematizatu eta guztiei informazio bera ematen zaiela ziurtatuko da. ▪ Errolda egin ▪ (alokairuaren ziurtagiria eskatzen ote den argitu, horrekin zer egin daitekeen zehazteko) ○ Baliabideen gida eman. ▪ Gidaren helburua zein den kokatu ▪ Gidak jasotzen duen oinarrizko informazioa zein den argitu ○ "Harrera bulego integrala" delakoan hitzordua eskatu eta orientabide zehatza eskaintzeko aukera eman (erroldatu guztiei, ez atzerritarrei bakarrik). ▪ Bulego integrala zer den azaldu, helburua, zertarako izango den. Bulego honekiko izan ditzakeen zalantzak argitu ▪ Hitzordua momentu honetan adostuko da (saiakera astebete-bi asteko epean ematea hitzordua) ○ Ongi etorri saioa ▪ Saioaren data eta xedea kokatzen dituen gonbidapena eman ▪ Gogorarazpena emailez, telefonoz edota posta arrunt bidez bidaltzeko baimena eskatu
○ Errolda momentuan jarduteko protokolo bat sortu ○ Baliabideen gida sortu ▪ Hizkuntza ezberdinetan ○ Alokairu ziurtagiriaren gaia argitu

HARRERA BULEGO INTEGRALA

- Hitzordua
  - Aldez aurretik HHZn erroldatzen diren momentuan adostua izango da

- Informatu ahal den modu zabalenean, Hernanik oro har, dituen aukera guztien artean. Orientabide eta argipen ahalik eta zehatzenak eman (ordu beteko tartea erreserbatu gutxi gorabehera pertsona bakoitzarekin)

- Orientabidea 3 eremuetan:
  - Udal zerbitzu eta baliabideak (hurrengo orrietan aipatzen diren guztiak, eta baita liburutegia ere)
  - Hezkuntza
  - Herri mailan, elkartegintza, kultura, ohiturak…
  - Informazio osagarria
    - Funtzionamendu orokorra (antolaketa administratiboa. Udala, osakidetza, hezkuntza…). Beharrezkoa bada "klabe kulturalak" baita ere.

- Baimena eskatu zerbitzu honen balorazioa egiteko

- Kulturartekotasun arloa:
  - Harrera Bulego Integrala sortu.
    - HHZ kokatua dagoen lekuan bertan zerbitzu berri bat eskaintzea proposatzen da (kulturartekotasun arloaren bidez antolatua).

    - Bulego honen helburua harrera integrala eskaintzea izango da, hau da, pertsona etorri berriaren ibilbidea ezagutu, Hernanira iritsita dituen itxaropenak-asmoak kokatzea, bere errealitate eta behar zehatzak ezagutzea, eta behin horiek kokatuta, orientabide eta argipen ahalik eta egokienak ematea. (ordu beteko tartea erreserbatu gutxi gorabehera pertsona bakoitzarekin)

    - Hitzorduak zehazteko aukera zehatzak egongo dira, adibidez, astean goiz bat eta arratsalde bat, eta HHZko administrariek adostuko dituzte hitzorduak erroldatu berriekin, agenda partekatu baten bidez.

    - Bulego integraleko teknikariak-langileak gidoi/galdetegi zehatza izango du, eta Baliabideen gidaz gain, informazio osagarria emateko baliabideak izango ditu (osasun txartela atertzeko irizpideak, mugi txartela ateratzekoak, ikastetxeen informazioa biltzen duen diptikoa, hondakinak, tasak, Etxebide, …)

ONGI ETORRI!
○ Denbora epe zehatz batean erroldatu berri diren pertsonei harrera herritarra eta gertukoa egitean datza, herriko eragile, udal sail ezberdinak eta herritarrak bilduko dira bertan. Helburu orokorra da harreraren kultura bultzatzea herrian. ○ Herriaren ezaugarri orokorrak, ohiturak, gune esanguratsuak, herriak eskaintzen dituen aukerak… Aurkezpenean eduki mota anitzak sartzen dira. ○ Egitura eta antolaketa: ▪ Udala izan daiteke sustatzaile nagusia, baina harrera herritarra izatea proposatzen da, hau da, herri gisa norbanakoak, elkarteak, etab. inplikatzea prozesu honetan. ▪ Urtean gutxienez hiru egitea proposatzen da
○ Ongietorri saioetarako gutuna ▪ Urtean egingo diren 3 harrera saioen datak urtebeteko ikuspegiarekin zehaztuta izatea proposatzen da. Horrela, errolda momentuan azalpen gutun bat eman ahal izango zaie, hitzordu zehatzarekin (ondoren hitzordua hurbildu ahala gutuna etxera bidaliko zaie, baita ere) ▪ Hizkuntza ezberdinetan ○ Ongi etorri saioak: ▪ Saioen aurretik epe zehatz horretan erroldatu diren pertsonen perfil zehatza ustiatuko da, saiora gonbidatu diren pertsonen ezaugarri nagusiak ezagutzeko, eta horren arabera parte hartuko duten eragile eta sailen hitzartzeak, indartu nahi diren ideiak antolatuko dira. ▪ Saio hauen eredurako gidoi bat egon daiteke erreferentzia bezala, eta ondoren, testuinguru eta aukeren arabera saio bakoitza moldatu.

ERROLDA

- Errolda "fiktizioa" edo "solidarioa", aukerak aztertu (*zerbitzu sozialen atalean garatzen da)
- Udal baliabideak erroldarako erraztu

ETXEBIZITZA

Gai oso garrantzitsua eta moduren batean heldu beharrekoa harrera protokoloaren baitan eta etorri berrien beharretan lehentasun handia duena. "oso gutxi mugitzen" denaren sentsazioa. Aukera bezala, proposamen bezala jaso dira:

- Udalak Alokabiderekin harremana eta elkarlana bultzatu, alokairuan dauden etxebizitzen kopurua, egoera, baldintzak eta kudeaketa hobetzeko. Alokabideren eskumena izan arren, udalak sentsibilizazio lana egin dezake etxe jabeekin. Talde tekniko bat sortu udalean (herriko eragile zein norbanakoen laguntzaz) gaia lantzeko.

UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Udalak **aholkularitza juridiko zerbitzua** proposatzen da. (gehiago garatzea falta da)

EUSKARA

Euskara zeharlerro bezala ulertzearen beharra azpimarratzen da arlo honetan. Protokoloaren helburuetako bat bada ikuspegi hau kontuan izatea, eta norabide horretan etorri berriari adierazi nahi zaio (ez diskurtsoz, jokabidez baizik) bertako hizkuntza Euskara dela. Horrexegatik aipatzen da Euskararen zeharlerrotasuna, prozesu eta proiektu osoan zehar hizkuntzak eduki beharreko lekua, presentzia eta erabilera ondo zehaztea beharrezkoa delarik. Adibidez, eta besteak beste, kontuan izan beharko da hizkuntzaren erabilera eta lekua zein izango den Harrera Bulego Integralean eta Ongi Etorri! saioetan.

MANTENDU:

- **Udalak eskaintzen dituen finantziazio aukerekin jarraitu**, ikastea doakoa edo ia doakoa izan dadin. Euskara ikasteak segitzen du ordainduzkoa izaten eta eskumen hori ere ez da Udalarena, Eusko Jaurlaritzarena baizik (HABE).
- **Euskara errefortzua**

EKIMEN ETA ERRONKA BERRIAK

- **12-16 urteko etorri berriei Euskara errefortzua ematea**
  Kasu honetan ez gara etxeko lanez ari, baizik eta adin tarte horretan etortzen diren nerabeei euskararen ezagutzan sakontzeko errefortzuaz. Udako egitasmo bezala planteatzea proposatzen da, ez ikasturtean zeharrekoa (Eskolan dabiltzanean ez dute denbora askorik horretarako). Maiz gertatu izan da uda partean edo etorri izana, gurasoek eskolan hasi aurretik euskararen oinarrizko ezagutzak behintzat eman nahi izatea, eta nora bidalirik ez edukitzea, euskaltegietan sartu ahal izateko gutxieneko adina 16 urte direlako. Garrantzitsua litzateke ibilbide bat adostuta edukitzea. Zalantza eskola partikularren bidetik egin (ordainduzko zerbitzu bat, agian euskaltegiko irakasleekin adostuta) edo boluntarioen sare bat eduki edo zerbait mistoa.

- **Helduen euskalduntzea**
  Erronka handia da, gaztelera ez izatea etorkinekiko harreman-hizkuntza, ulermen mailara behintzat iristeko. Horrez gain, larriena da beren lan-zirkuituetan, formazioetan (lana bilatzea baita beren lehentasuna) euskarak ez duela presentzia minimo bat ere (Lanbiden ikastaro guztiak gaztelaniaz dira, eskaintzen zaizkien Heziketa zikloak edota beste era bateko ikastaroak gaztelaniaz dira...). Hau ere ez dago, bada, Udalen esku,

baina edo hor txertatzen da euskara edo hortik kanpo, beren egunerokotasunetik aterata, euskaltegietara bideratzea oso nekeza da, ez dutelako horretarako denborarik

- **Beterritik etorri berriekin egiten diren esku hartze eta ibilbide soziolaboraletan Euskararekiko ezagutza** eta euskalduntzerako lehen urratsak eman. Udalak gune sozioekonomikoaren inguruan egin dezakeen eskuhartze bakarrenetako gisa baloratzen da
- **Helduen Heziketa Iraunkorra (EPA) ikastetxean eragin,** bertako ikastaro eta baliabideen eskaintzan Euskarak lekua izan dezan.

HEZKUNTZA

MANTENDU:

- **Etxeko lanetarako errefortzua 12 urte arteko ikasleentzat**.
- **Etorkinen seme-alaben inklusiorako langunea**.
- **Haurren matrikulazio Batzordea**. Gaur egun matrikulazio epez kanpo datozen ikasleen inguruan gomendio-proposamen txosten bat idazten du Batzorde honek Eusko Jaurlaritzarentzat, haur etorri berria zein ikastetxetan matrikulatzea gomendatzen den adieraziz (hainbat irizpide kontuan izanda). Lanketa honekin jarraitu egingo da, aurrera begira erronka gehiagori eusteko asmoa duelarik: alde batetik, gaur egun egiten den lanaren jarraipen eta azterketa sakona egitea aurreikusi da, lantaldeak egindako proposamenen betetzearen inpaktua neurtuz. Bestetik, momentu honetan matrikulazio epez kanpo iristen diren ikasle berrien kasuak lantzen dira, baina aurrera begira erronka berriak izan ditzake, azken finean, lantalde honen helburua herriko ikastetxeetako matrikulazioan eta oro har, banaketa-antolaketan eragitea baita.

EKIMEN ETA ERRONKA BERRIAK

- **Etxeko lanetarako errefortzua eskolak 12tik 16rarteko adin tartera luzatzea**. Luzatu aurretik, lehenik eta behin, aztertu behar da orain arteko egitasmoa zein emaitza ematen ari den, norabide berean aritzeko edota aldaketak egiteko. Zalantzak egitasmo honekiko, baita 8-12 urte bitartekoentzat eskaintzen denarekiko ere. Batetik, etxeko lanen kontua bera dago. Etxeko lanak eman egin behar dira? Bestetik, ikasketa prozesuekin lotutako gai guztiak Hezkuntza sailari dagozkiolako, ez udalari. Haur horiei gauzak erraztu eta baliabideak jarri beharrean, zigortu egiten ditugu, eskolaz kanpo ere etxeko lanak eginaraziz. Ikasketekin lotutako lanak eskolan bertan egitekoak dira, ez etxean, eta gutxiago, eskola partikularretan. Baina gaur egun arazo bat da eta haur eta nerabe horiek hizkuntza behar bezala ez jakiteak ondorio larriak ditu haiengan (eskola porrotak...) eta herrian. Zabaltzen hasi aurretik egin behar dena da jakin zer nolako emaitzak ematen ari den egitasmoa; berdin jarraitu behar ote den ala aldaketak egin behar ote diren (balorazio serio bat egin behar da) eta Udala prest ote dagoen eta gai ote den aurrekontuan diru gehiago

jartzeko. Azkenik, boluntarioen sare bat osatzea proposatzen da, administrazioaren esku soilik ez uzteko ardura. Boluntarioak gazteak balira, oraindik eta hobeto, eta aurrera begirako erronka bezala aipatu da boluntarioak ikastetxeetan "sartzea"

ZERBITZU SOZIALAK

Eremu honetan jasotzen diren proposamenak zuzenean etorri berrientzat espezifikoak izan daitezkeen proiektuak dira. Momentu honetan Zerbitzu Sozialetatik eskaintzen diren zerbitzu eta baliabideak herritar orori aukera berdintasunean eskaintzen zaizkio, ez dago etorri berrientzat esku-hartze edo proiektu zehatzik, bizirauteko oinarrizko beharrak eta zaurgarritasun egoeran aurki daitezkeen pertsonei bideratutakoak, baizik.

MANTENDU:

- **Gaur egungo baliabide, esku-hartze eta proiektuekin jarraitu,** beti ere kontuan izanda (aurretik aipatu moduan) etorri berrientzat momentu honetan ez dagoela ezer espezifikorik.

PROIEKTU ETA ERRONKA BERRIAK:

- **Familia berrelkartzeetarako programa. Laguntza eta jarraipena**
  Nerabeen kasuak aipatu dira bereziki Harrera Protokoloa berritzeko prozesuan, baina oro har, hainbat urteren ondoren familia berriro elkartzean, arauak, ordutegiak, ardurak, etxebizitza eta denboraren antolaketa, elkar harremantzea… hainbat erronka berrirekin aurkitu ohi dira. "Reagrupazio" egoeretarako lan talde berezi bat sortzea proposatzen da, arreta psikologikoa, hizkuntza, hezkuntza… Berrelkartze programa honen izaera zehatza 2021 urtean zehar zehaztekotan geratzen da, hainbat direlarik argitu beharko diren ezaugarriak programari dagokionean, besteak beste: guraso eskola formatuan eskain daitekeen, programa honetara heltzeko bidea zerbitzu sozialek izan behar duten edota kulturartekotasun arloak, programaren derrigorrezkotasuna, etab.

- **Laguntza psikologiko zerbitzua sortu-bideratu, etorri berrien esperientziak lantzeko**.
  Hainbat kasutan prozesu traumatikoak bizi ahal izan direla kontuan hartuta, etorri berri diren pertsonak jatorriko, bidaiako zein hemengo esperientzia traumatikoei aurre egiteko zerbitzu edo baliabide berri bat sortzea proposatzen da.

- **Erroldatzeko aukerarik ez duten herritar berriekin esku hartzea**. Errolda aukerarik ez duten herritarrekin maila batean edo bestean esku hartzeko beharra aipatu da prozesu osoan zehar, herritar hauen zaurgarritasuna bereziki kontuan izan beharrekoa dela adieraziz.

TOKIKO GARAPENA

MANTENDU

- **Etorri berrien laneratzea sustatuko duen zerbitzu espezifikoa**

- **Harrera batzorde soziolaborala**: formazio profesionala, atzerritartasun legea, gizarteratze eta laneratze sistema publikoaren (Gizarte zerbitzuak, Lanbide-SVE) gaineko saio informatiboak antolatu hiruhilabetero/seihilabetero. Hezkuntzako harrera batzordearekin egiten den bezala.

EKIMEN ETA ERRONKA BERRIAK

- **Baliabidez hornitzea**. Aipatu diren proiektu hauek gaur egun ematen diren arren, tokiko garapeneko sailaren eta Iturola zerbitzuaren baitan datozen hilabeteetan hainbat aldaketa aurreikusiak dira. Gauzak horrela baliabide proiektuak mantentzeko baliabide teknikoen beharra azpimarratu da prozesuan, eta beraz, mantentzen diren esku-hartzeak badira ere erronka berrien azpiatalean jasoak geratzen dira

GAZTERIA

EKIMEN ETA ERRONKA BERRIAK:

- **Gaztelekua:**
  - Gaztelekua nerabeen inklusiorako zerbitzua izateko lanean jarraitu zerbitzuko partaideak anitzagoak izateko
  - Nerabeen arteko harreman berriak eraikitzen laguntzea, sustatzea
  - Sentsibilizazio komunitarioa egin inklusioa lantzeko

- **Alokairurako diru-laguntzak**
  - Gazteria sailetik bideratzen diren alokairurako diru-laguntzen baldintza eta arauak berrikusi. Berrikustea aipatzean etorri berrien egoeretara egokitzeko adierazi nahi da, eta hau, Zerbitzu Sozialekin batera lantzeko gaia litzake.

- Gazteria sailean, orokorrean:

  - **Gazteen artean harreman berriak sortzeko aukerak areagotzea**. (eskaintzen diren ikastaro eta partaidetza espazioetan lantzea)
  - **Oinherri**. Proiektu honetan lanean ari da Udala, hastapenetan. Haurretatik gazteetara arteko continuumean, herri hezitzailearen lanketan etorri berriekiko sentsibilizazio, ezagutza eta inklusirako bideak eraikitzen joatea modu komunitarioan. Herri hezitzailearen barnean modu kontzientean aniztasuna lantzea beharrezkoa izango da.
- **Haur eta nerabeen Ongi Etorri!** Adin tarte honentzat bereziki antolatutako esku hartze bezala proposatzen da.

LIBURUTEGIA

PROIEKTU ETA ERRONKA BERRIAK:

- **Harrera protokoloan sartu.**
  - Etorri berriekin esku hartzeko protokolo propioa idatzi.
  - Liburutegian bertan ere zerbitzu eta baliabideen gida eskura eduki, etorri berriei (beharra somatzen duten kasuan, edota baliagarria dela baloratzen den momentuan) eman ahal izateko.

- **Herriko hainbat elkarte eta ikastetxeekin koordinatu**. Hezkuntza , Euskara eta Gazteri sailek dituzten erronka horietan liburutegiak zer nolako laguntza eman aztertzea, eta bereziki Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroarekin izan dezakeen harremanean sakondu.

BERDINTASUNA

MANTENDU:

- **Indarkeria matxistaren inguruko dokumentazioa hizkuntza anitzetan.** Gaur egun indarkeria matxista jasaten duten emakumeentzat informazio eskuorriak hainbat hizkuntzatan publikatzen ditu Hernaniko Udalak.

- **Jabetze Eskoletako ikastaro batzuk emakume atzerritar etorri berrien beharretara egokituak**. Jatorri eta kultur aniztasunaren ikuspegitik saioen hizkuntza, edukiak, ordutegiak, etab. kontuan izaten dira Jabetze Eskoletako egitaraua antolatzerakoan. Norabide honetan lanean jarraituko da.

- Zeharlerrotasuna eta sentsibilizazioa. Azken urteetan Berdintasun arloaren baitan jatorri eta kulturartekotasunaren inguruko irizpideak kontuan izanez lan egiten da, hizkuntzak, ordutegiak, edukiak, egitarauak, programak, esku hartzeak, etab. planifikatu eta egikaritzerakoan. Horrez gain,

zeharlerrotasunaren ikuspegitik azken aipamena egin zaio Harrera Bulego Integralari. Izan ere, abiatzen denean arlo honetako gutxienez bi baliabideren berri eman beharra: batetik, Kulturarteko Plaza Feminista izango denaz informatu (bertako baliabide eta zerbitzuen berri emanez, eta sortuko den gidan txertatuz), eta bestetik, indarkeria matxistaren gaia ere kontuan izan.

EKIMEN ETA ERRONKA BERRIAK:

- "**Jatorri anitzeko emakumeentzat kulturarteko gunea**" sortuko da: Jabetze Eskolen dinamikaren barruan, hamabost egunean behin bi orduko saio bat antolatuko da emakume atzerritar etorri berrien behar eta asmoetara egokitua.

HEZKUNTZA

IKASTETXEETAN

- **IKASTETXETAN HARRERA**
  "Ongietorri eskolara!" programa aurrera eraman

- **HIZKUNTZA**
  Hizkuntza izaten da eskolan ibilbide egokia egiteko baldintzatzaile handi bat, eta norabide honetan, Hizkuntza bereganatzen duen ikasleak, kultura, ohiturak, inklusiorako erraztasunak ematen ditu behintzat eskola esparruan, eta baita sozialki ere.
  - Hizkuntza errefortzurako baliabideak indartu,
  - Murgiltzea erraztuko duten aukerak aztertu, besteak beste prozesuan aipatu dira:
    - Tronkalak eta zeharkakoak diren irakasgaiak bereizi eta ikasle etorri berriak tronkaletan bakarrik eduki ikasgelan, gainerakoa hizkuntza ikasteko baliatu
    - Lehendabiziko ikasturtea (beharrezkoa bada, ikasturte osoa) hartu hizkuntza ikasi eta barneratzeko
  - Eskoletatik garrantzia handiagoa eman Kaxkardi eta Doberarekin antolatzen diren errefortzu klaseei. Gune oso garrantzitsuak, baliagarriak eta ikasleak bertara bideratzea / animatzea / kontzientziatzea ikastetxeen ardura litzake.

- **FAMILIAK ETA HARREMAN SAREAK**
  - Gurasolagunak.
    Gurasoen arteko harremanak. Etorri berri diren familiekiko harremanean eta interakzioan baliabide berriak sortu, eskolak ezin du bakarrik, herria beharrezkoa da
  - Familia ere herriko sareetara bideratzen ahaleginak egin
    Herriko sareen garrantzia ezinbestekoa da, familiek bestela uste dute eskolako kontuak direla bakarrik. Auzoak, kultur ekintzak, Eskola kirola…herriko erankudeetan parte hartzea.

INSTITUTUA (EDOTA 12-18 URTE ARTEKO NERABE ETA GAZTEAK)

- **DBH NOLA BUKATU, ERRONKA NAGUSIA NERABE ETORRI BERRIENTZAT.**
  - Hizkuntza ikasteko ikasturte bat hartu. Horretarako baliabideak jarri.
    Ez klasean bakarrik, kirolean, aisialdian ere errefortzatu, eta lehendabizi hizkuntza ikasteko eta barneratzeko aukera eman, bestela ez dago aukerarik gainerako irakasgai eta kurrikulumari dagozkionak betetzeko.
- **16-18 urte artekoen ikasketa zailtasunei aurre egin**
  Derrigorrezkoa ez den hezkuntzarako eskoletan sartzeko erraztasunak eman. 16 urte gorako pertsonak kili-kolo geratzen dira. 16-18 urte bitartekoak gainera ezin dute EPAn ikasi. Hezkuntza mugatuta dute. Beste gainontzekoak EPAn matrikulatu dezakete irailan eta urtarrilan bakarrik
- **KIROLA, GAZTE ETA NERABEEN HARREMANETARAKO AUKERA.**
  Kirolean aritu diren etorri berrien kasuetan, harreman sozialak egiteko duen aukera azpimarratu da, bai gazte-nerabearen kasuan, baita gurasoen kasuan ere.
  - Behar diren kasuetarako baliabide ekonomikoak jarri-adostu.
  - Kirol klubekin harremanak eta harrera gaiak sentsibilizatu. (Rugbi taldearen jarrera azpimarratu da hainbatetan, gainerako elkarteekin ere lanketa hori egiteko aukera aztertu)

Helduen Heziketa Iraunkorra HHI-rekin LANTZEKO ETA ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

- **HIZKUNTZA**
  Euskaltegiez gain, HHI dago (Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxea) eta hemen, nagusiki gaztelania(z) ikasten dute. Ikastetxe horretan beste norabide bat hartzea garrantzitsua da (hori ere Hezkuntza Sailaren esku, baina udaletik ere eskuhartze gutxi egin da zentzu horretan). Gehiago egiteko aukerak aztertu.

- **LIBURUTEGIA**
  Liburutegiko zerbitzua ezagutaraztea bisita gidatuen bidez, bereziki HHI

UDALA – IKASTETXEAK

- **Etorri berrien seme alaben inklusiorako langunea**
  Langunearen helburua zabalagoa da eta benetako erronka da, besteak beste, kopuruak orekatzea eta, horretarako, matrikula garaiko eskolatzeak ere beste modu batera bideratzea
  - Matrikulazioa eta ikastetxeen aukeraketan gurasoekiko sentsibilizazioa eta informazioa landu. Gurasoei informazio hobea emanez, eskola hautu egokiagoa egin dezaten, edo, gutxienez, egiten duten hautua informazio gehiagorekin egin dezaten.
  - Harreraren inguruan gurasoak eta herritarrak sentsibilizatzea. Bertako familien jarrera eta begirada pasiboan eragin behar da, sentsibilizazioa behar da. *"Eskumenak eskumen eta politikoki zuzenak diren adierazpenak adierazpen, "autoktonook" ere ez dugu hain garbi orekatze horiek onuragarriak ote diren..."*

- **Harrera Batzordea**
  Gune honen helburu nagusia da eskoletan familia etorkinetako haurren kopuruak orekatzea. Momentuz, matrikula-epez kanpo etortzen diren haurrak non eskolatu erabakitzeko aholkua ematen da.
  - Hezkuntza Saileko Eskolatze Batzordetik Hernaniko Harrera Batzordearen aholkuak noraino hartzen diren kontutan egiaztatzea
  - Harrera Batzordearen lanak herriko argazki sozialean zer nolako eragina duen egiaztatzea

- Eskualdeko Hezkuntza Batzordea sortu kurtso erdian etortzen diren gazteen eskola-kokapena errazteko

SOZIALA

ONGI ETORRI!

Harrera Kultura sustatu herrian nolabait. Garrantzia gehiago eman Ongietorri saioei. Amherren egiten den harrera ez da "informala". Ez bakarrik Amherrek antolatzea edo Amher elkartearen ekimen bat izatea baizik eta herriko beste eragile, elkartze zein esparru instituzionalen inplikazioa behar. Harrera saioan ezin dugu diskriminatu eta bakarrik erroldatutakoei gonbidatu

HERNANIAR BIDELAGUNAK.

Bidelagun/Mentoretza programa: Herritar "autoktonoak" boluntarioki pertsona etorri berrien bidelagun izatea.
Egitura bat sortu, herritarrek bertan parte hartu ahal izango dutena, gaiarekin lotura edo parte hartzea izan dezaten, bakoitzaren aukera eta inplikazio mailaren arabera, baita ere (Amher-en boluntario sarea aipatzen da, baina harago joan beharko lukeena, zabalagoa). Erroldarekin, irteerak egiteko-aisialdian, aholkularitzako gaietan, hizkuntzarekin, eskolako lanetan, etab. Halako egoera ezberdinetan inplikatzeko prest leudeken pertsonekin sarea sortu.

ETXEKO LANETARAKO ERREFORTZURAKO BOLUNTARIO SAREAK SORTU

Etxeko lanetarako errefortzua eskolak 12tik 16rarteko adin tartera. Boluntario talde bat sortzea, administrazioaren esku soilik ez uzteko ardura. Boluntarioak gazteak balira, oraindik eta hobeto

HERRIKO ERAGILEEN INPLIKAZIOA SUSTATU


- KIROLA, HARREMANETARAKO AUKERA.
  Kirolean aritu diren etorri berrien kasuetan, harreman sozialak egiteko duen aukera azpimarratu da, bai gazte-nerabearen kasuan, baita gurasoen kasuan ere.
  - Behar diren kasuetarako baliabide ekonomikoak jarri-adostu.
  - Kirol klubekin harremanak eta harrera gaiak sentsibilizatu. (Rugbi taldearen jarrera azpimarratu da hainbatetan, gainerako elkarteekin ere lanketa hori egiteko aukera aztertu)

HARRERA PROIEKTU ETA PROZESUEN LABURPEN TAULA: udal baliabideak

Arloa	Mantendu	Erronka berriak	Urtea
Kultur-artekotasun arloa	Amher – sos arrazakeriarekin hitzarmena	Harrera bulego integrala	2021
		Ongi etorri!	
		Baliabideen gida	2021
		Aholkularitza juridikoa	2021
		Kulturarteko Plaza Feminista	2021
HHZ		Errolda momenturako protokoloa: - Informazioa jaso - Gida eman - Harrera bulego integralerako hitzordua - Ongi etorri! Saiora gonbidapena	2021
Euskara	Finantzazio aukerekin jarraitu	12-16 urteko etorri berriei euskara errefortzua	
	Euskara errefortzua	Etorri berriekin egiten diren esku hartze eta ibilbide soziolaboraletan euskararekiko ezagutza	
		Helduen heziketa iraunkorra (epa) ikastetxean eragin	
Hezkuntza	Etxeko lanetarako errefortzua 12 urte arteko ikasleentzat	Etxeko lanetarako errefortzua eskolak 12tik 16rarteko adin tartera luzatzea	
	Etorkinen seme-alaben inklusiorako langunea		
	Haurren matrikulazio batzordea		
Zerbitzu sozialak	Gaur egungo baliabide, esku-hartze eta proiektuekin jarraitu	Familia berrelkartzeetarako programa	
		Laguntza psikologiko zerbitzua sortu-bideratu, etorri berrien esperientziak lantzeko	
Tokiko garapena	Etorri berrien laneratzea sustatuko duen zerbitzu espezifikoa		
	Harrera batzorde soziolaborala		
Gazteria		Gaztelekua, nerabeen inklusiorako zerbitzua izateko lanean jarraitu	
		Alokairurako diru-laguntzak berrikusi	
		Haur eta nerabeen ongi etorri	
Berdintasuna	Indarkeria matxistaren dokumentazioa hizkuntza anitzetan	Jatorri anitzeko emakumeentzat kulturarteko gunea	2021
	Jabetze eskoletako ikastaro batzuk emakume atzerritar etorri berrien beharretara egokituak		
	Zeharlerrotasuna eta sentsibilizazioa		
Liburutegia		Harrera protokoloan sartu: - Protokolo propioa idatzi - Baliabideen gida eskura eduki	
		Herriko hainbat elkarte eta ikastetxeekin koordinatu, gunea eta baliabideak ezagutarazteko	

ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIOARI DAGOKIONEAN:

Dokumentu honen azken atal honetan antolaketa eta koordinazioari dagokion oinarrizko proposamena jasotzen da. Jarraian agertzen den irudiak laburbiltzen du antolaketa egitura, eta jarraian gune bakoitzaren azalpen labur bat jasotzen da.



HARRERA TALDE ERAGILEA. FINKOAK.
Harrera proiektu eta esku hartze guztien ikuspegi integrala eta jarraitua izango duen lantaldea.
Maiztasun finkorik ez.
Osaera:

- Kulturartekotasun arloko arduradun teknikoa
- Kulturartekotasun arloko arduradun politikoa
- (gehiago?)

Funtzioak:

- Harrera protokoloan mantentzeko jasotzen diren proiektu eta egitasmoen jarraipena egin
- Harrera protokoloan jasotzen diren proposamen eta esku hartze berrien planifikazio eta diseinua egin
- Hainbat esku hartze edo egitasmo berriren sustatzaile/dinamizatzaile/motore izan

HARRERA TALDE ERAGILEA. ALDIZKAKOAK
Proiektu berri zehatzak abiatzeko lan talde exekutiboak izango dira, lan talde puntualak izango dira proiektu eta esku hartze berrien abiatzeak modu adostuan garatzeko.
Maiztasun finkorik ez.
Osaera:

- Kulturartekotasun arloko arduradun teknikoa
- Kulturartekotasun arloko arduradun politikoa
- Arlo edo proiektu horretako udal arduradun teknikoak
- Arlo edo proiektu horretako gainerako eragileen ordezkariak (ikastetxeak, gizarte eragileak, elkarteak, etab.)

Funtzioak:

- Harrerarako erronka eta proiektu berrien diseinua adostea: izaera, helburuak, lan antolaketa eta banaketa, etab.

HERNANI HARRERA HERRIA. TALDE ZABALA

Harrera gaietan inplikatuak diren eragile eta erakundeetako ordezkariak bilduko dituen gunea. Maiztasun zehatz bat izango du (adibidez, bi hilean behin)
Osaera:

- Harrera proiektu eta esku hartzeetan parte hartzen duten eragileen ordezkaritza
- Kulturartekotasun arloko arduradun teknikoa
- Kulturartekotasun arloko arduradun politikoa

Funtzioak:

- Proiektu eta esku hartzeen jarraipena egin
- Proiektu eta esku hartze berrien inguruko aukera eta indarguneak landu, elkarren artean ekarpenak egin eta osatu
- Proiektu eta esku hartzeen balorazio eta jarraipena egin
- Harrera protokoloaren garapena herriratzeko edo sozializatzeko (komunikatzeko) moduetan eta estrategietan pentsatu

HARRERA HERRIA. JARDUNALDIA

Urtean behineko maiztasuna izan dezakeen gune bat izango da, Harrera gaiekin interesa duten norbanako, elkarte, erakunde eta arduradunek parte hartu ahal izango dutena.

Urtean zehar egin diren ekintza eta esku hartze guztien deskribapena eta balorazioa azalduko dira, itzulketa egitearen ikuspegitik. Horrez gain, ordura artekoa baloratu, ekarpenak egin eta erronka berriak definitzeko baliatu ahal izango da. Eta amaitzeko, beste esperientzia batzuk ezagutu, gonbidatu edota formazio-sentsibilizaziorako ere erabili ahal izango dira saiook.

Eranskina. UDALARENTZAT PROPOSAMENAK

Amaitzeko, eta harrera protokoloa sortzeko prozesuan jaso diren ekarpen gisa, ondorengo zerrenda aurkezten da. Prozesuaren momentu ezberdinetan atera diren ideiak dira, batzuk oso puntualak direlako ez direnak sartu, besteak aldiz hausnarketa eta prozesu askoz luze eta zabalagoa behar dutelako (azterketa juridikoa behar dutelako udal eskumenen inguruan, adibidez).

- Larrialdietarako gizarte zerbitzua. Donostian badago "GIZARTE LARRIALDIETARAKO UDAL ZERBITZUA (GLUZ)" aurreikusten duena larrialdiak egoten direla eta haiei aurre egin behar zaiela
- Aterpetxea
- Oposaketetarako nazionalitatea edukitzeko baldintza berraztertu
- Errolda momentuan alokairuaren ziurtagiria eskatzea derrigorrezkoa den begiratu, eta ahal dela, baldintza hau kendu.
- Etxerik gabeko pertsonentzat "Housing first" proiektua insteresgarria da.
    - https://hogarsi.org/derecho-vivienda/
    - https://hogarsi.org/publicaciones/
    - http://housingfirst.es/
- Azkenik mahai gainean jarri nahi dugu garrantzitsua dela jasotako informazio gehiena dela erroldatik eta erroldatu gabeko pertsonak ere badagoela eta beraiei ere atentzioa eman behar zaiela